

Ez dut ikusi



NEREA IBARZABAL SALEGI
BERTSOLARIA

*Ez dut ikusi biziak dituenik
abailtzenago
hildako gorputz baten gelditasun
apalak baino*

Rosalía de Castro

Bidean ageri da heriotza, han-he-menka, zaparrada bat izango denaren aurreneko tanta lodiak hasten dira ugaritzen urteek aurrera egin ahala, inguruan zein etxean, ume berrien etorrerari buruzko albistekin nahastean. Telefono dei baten ostetik iristen dira betirako oroituko dituzun datak, medikuen abizenak eta eguraldiak, hemendik aurrerako egutegi guztietan agertuko zaizkizunak, egutegi beharrik gabe. Beroa, elurtea, hego haize ikaragarria, euri langarra egin zuen goiz hartan, inoiz ez bezalakoa, inoiz ez ahazteko modukoa. Alkandora hura zeneraman soinean, aurreko egunean mila gauza egin zenituen, halakorik susmatu ere egin gabe, bilera bat, erosketak, korrikaldi bat polikiroldegian, orain beste esanahi bat hartu dute denek.

Heriotzan pentsatzea da unibertsoaren amaiezintasunean pentsatzearen antzerakoa, handiegia okelaz eginda-

Pertsona nagusi
bat ikusi dut bere
gaztaroko argazkiei
begira, atzamarrarekin
argazkiko lagun
paparrak zapalduz, "hau
hilda dago, eta hau ere
bai, eta hau, gizajoa"

ko buru-muinek ulertzeko, ez da kabitzen burezuraren barruan hainbesteko zabalerarik. Propio eginda egongo da, beharbada: ez diezaiegun eskaini egunean pare bat minutu baino gehiago halako galdera handiei, jaitsi gaitzen geure eskuetan kabitzen denaren tainara. Segi lanean, segi sinesten, segi lo hartzen eta esnatzen, ezer gutxik du zentzua, Marten 100 km orduko abiaduran dabil haizea inork grabatzen ez duenean ere, Ameriketara orain gaua da, zu hemen ez dagoen pertsona baten ahotsa entzuten ari zara aspaldiko bideo batean, gehiago entzungo ez

den ahots bat, halako forma duen ahots-kordarik ez delako sortuko mundura berriro. Zorteduna zu, zure alboan sortu zelako.

Pertsona nagusi bat ikusi dut bere gaztaroko argazkiei begira, atzamarrarekin argazkiko lagun paparrak zapalduz, "hau hilda dago, eta hau ere bai, eta hau, gizajoa", eta sentitu dut bere besoetako eta sorbaldeetako hotza nireetan, husten joan den mahai-inguru bateko bakardadea, ogi papurrak mantellean. Heriotzak erakusten die begiei agur esanez bezala begiratzen. Noizbait, mahai-inguruko denak argazki bihurtutakoan, besteren batek heldu beharko dio irudi horri, beharbada nik, jakin gabe zein egun izan zen hura, zergatik elkartu ziren, zein zegoen kameraren beste aldean. Oroitu egin beharko dut beste egun hau, azalpenak entzun nituenekoa, hauxe izango da inork atera ez digun argazkia, grabatu gabeko bideoa. Horrelako gauzak kabitzen dira okelatan, lauso bada ere. Besterik ez. Egia potoloren bat ikasteko jaio garela pentsatu nahi izaten dut batzuetan, eta hori ezagutu arte ez garela hilko. Gero ohartzen naiz ezetz, heriotzak gutxitan harrapatuko zaituela prest. ●

TRADEBI
TRANSLATION

tradebi@tradebi.com

DATU PERTSONALEN BABESA
EUROPAKO ARAUTEGIA

Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu

SIGACUS

☎ 943 453 588 · www.sigacus.com

MARCOS
okindegia

**Benetako
antzinako ogia**

☎ 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)